

ERLEEN GAÑEAN JOLASA.



—Gaur itz egin bear dizut erleen gañean.

—Aberecho gayonak dira erleak: oyek ematen digute eztia.

—Ez bakarrik ematen digute eztia, bai ere argizagia.

—Nola ezti zalea naizen chit, ez nintzan argizagiaz oroitzen.

—Jateko bezin ona da eztia osakaitako. Kostoma dan orduan artzen da eztia urarekin. Beste aldetik berriz jzenbat gauzatarako ez da ona argizagia! Onekin egiten dira arkayak, ezkoztuak eta enplasto muet asko. Erleak jayotzen dira ingumak bezela, eta jaten dute eztia. Loreetan arkitzen dute eztiaren eta argizagiaren gaia. Loreare n iriñarekin egiten dute argizagia, eta eztia berriz loreari ninikatik ateratzen dioten ezadearekin. Iriña biltzen dute lore gañean atzeko zankoak arrastaka erabilliaz. Zankoetan dituzte zankozorro mota batzuek, eta ez dira gelditzen oyek bete arteraño. Ezadea chupatzen dute murturrean duten tronpa batekin. Ezadearentzat dute urdall bat, eta an argizagi biurtzen da. Gero, aotik argizagia boteaz, dijoaz abaraska egiten. Abaraska egiña dagoan orduan, betetzen dituzte onen chuloak eztiz.

—¿Chuloari zeldilla al-deritza?

—Abaraskarenari bai.

—Choratzen naute ni gauza oyek guztiak.

—Ez dezu zerzaz choratu.

—¡Zer!¿ez da choratzeko gauza lorearen gañean dagoan iriña argizagi biurtua ikustea?

—¿Eta ez zaitu choro biurtzen ikusteak gure odol biurtzen guk jaten ditugun gauzak?

—Egia diozu, ez nintzan kontuan erortzen.

—Gaur beyak jan duen belarra biar esne biurtua jaten. degu.

AGUSTIN PASCUAL DE ITURRIAGA.

